

ALCOIBIOUP! PROIEKTUAREN ADIERAZLEEN JARRAIPEN SISTEMAREN AURKEZPENA UDAL GOBERNU-TALDEAREN AURREAN

Posted on 18/02/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Comunitat Valenciana](#), [Monitorizazio plataforma](#)

NAIDERrek [Alcoiko Udala](#)ri aurkeztu dio [AlcoiBioUp!](#) proiektuaren C3 Ekintzaren esparruan garatutako jarraipen-sistema. Sistema horren helburua da hiri-errenaturalizazioko jardueren emaitzak modu egituratuan neurtzea eta udal-kudeaketarako tresna gisa haren jarraitutasuna erraztea.

Saioan, [Fundación Biodiversidad](#)-ek ezarritako adierazle-sistemaren arkitektura azaldu dugu. Sistema hori hainbat dimentsioren inguruan egituratzen da: jarduketa-azalerak, hiri-biodibertsitatea, konektibitate ekologikoa, klima-erresilientzia, ingurumen eta gizarte ko-onurak eta genero-ikuspegia. Sistemak iturri ofizial georreferentziatuak, udal-inbentarioak, teledetekzioa eta inkestak integratzen ditu; horri esker, oinarri-lerro sendoa eskuratu eta emaitzen bilakaera modu objektiboan ebaluatu daiteke.

Aurkezpenean azpimarratu dugu proiektuak ez dituela soilik hiri-errenaturalizazioko esku-hartze fisikoak sustatzen; horrez gain, datuetan oinarritutako jarraipen-azpiegitura bat ere txertatu du, etorkizunean udal mailako monitorizazio iraunkorrerako plataforma bihurtzeko diseinatu. Ildo horretan, nabarmendu da komenigarria dela neurketak proiektua amaitu ondoren ere mantentzea, errenaturalizazioa politika publiko egiturazko gisa sendotzeko, plangintza eta inbertsioen lehentasunen ezarpena hobetzeko, gardentasuna eta kontu-ematea indartzeko eta tokiko klima-aldaketara egokitzapena babesteko.

Topaketan aktiboki parte hartu dute Toni Francés Pérez Alcoiko alkateak; Vanessa Moltó Moncho Ogasun eta Hirigintzako zinegotziak; Aroa Mira Rojano Gizarte Politika Inklusibo, Herritarren Parte-hartze, Adinekoen eta Haur eta Nerabeen arloko zinegotziak; Raül Llopis i Palmer Klima Larrialdi, Herritarren Segurtasun, Larrialdi eta Babes Zibileko zinegotziak; Carles Samper Sánchez Ingurumen Saileko buruak; eta Maria Adam Cuixeres AlcoiBioUp! proiektuko teknikariak.





